



## LASARTE-ORIAKO UDALAREN, OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAREN ETA ATERPEAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO AKORDIO MARKOA

Lasarte Orian, 2015eko urriaren 15ean

### BILDURIK

ALDE BATETIK, **Jesús Zaballos de Llanos** jauna, DNIA 44.146.883Q zenbakikoa duena, Lasarte-Oriako Udalaren ordezkari gisa, hango alkate-udalburua den aldetik.

BESTETIK, **Imanol Bardají Zuriarrain** jauna, DNIA 15963169L zenbakikoa duena, OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAREN ordezkari gisa, hango lehendakaria den aldetik.

BESTETIK, **Ramón Ormazabal Mendiguren** jauna, DNIA 15.957.773M zenbakikoa duena, ATERPEA Merkatari-Elkartearen ordezkari gisa, hango lehendakaria den aldetik.

Jakinarazten dute ordezkatzan dituzten instituzioak behar bezala baimenduta daudela honako AKORDIO MARKO hau hitzartzeko, ondoko estipulazio hauetan oinarrituta:

### ADIERAZI DUTE

1. Garapen lokala faboratzeak berekin eskatzen duela gizarte hau osatzen dugun estamentu, enpresa eta pertsona guztion ahalegina eta ekarpena. Krisi-garaian egiteak, gainera, berekin dakar modu berezi batean inplikatzeko ekonomiaren eta egonkortasun laboralaren bilakaera zalantzazkoan zuzenean murgildurik aurkitzen direnekin. Gure kasuan, Lasarte-Oriako bizitza sozial eta ekonomikoan, merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzu pertsonalen enpresek osatzen duten hirugarren sektoreak presentzia nabarmena dauka eta, ondorioz, denon arteko sostengu irmoa behar duen sektore bat da, kokatua dagoen herriko sare sozial osoan zenbateko garrantzia duen ikusita.

2. Lasarte-Orian hirugarren sektorearen iraunkortasuna ahalbidetzeko eta haren biziberritzea eragiteko, egokia gertatzen ari dela udal-esparrutik sustatzen ari den marka komertziala, gure merkataritzaren eta ostalaritzaren identitate berezia definitzen duena, hurbiltasunaren eta konfiantzaren balioak oinarritzat hartuta. Hauxe da marka hori: *Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato.*



3. Beraz, bere sustapenean eta zabalkundean, hirugarren sektorea osatzen dutenen konpromisoa ez ezik, ingurune lokaleko beste enpresa eta entitate batzuen ere espero eta behar duen marka bat dela, herritar guztiak haren ezagutzari buruz sentsibilizatzea iritsiko bada.

4. Ekonomia Sozialarekin identifikatutako entitateak izanik, bereziki interesgarria dela OSTADARREKIN eta ATERPEAREKIN akordioa sinatzea, ezen-eta helburu sozialak baitituzte, kirolean bezala merkataritzan ere, nabarmentzekoa delarik haien jarduerak eta ebentuek herri-mailako ekonomia sustatzen dutela, Lasarte-Orian ase gabeko premiei erantzuten dietela, lana sortzen dutela eta udalerriko giroa hobetzen dutela. Udaletik sustatu nahi diren kontzeptuak guztiak ere.

Horrela, bada, alderdiek beharrezkotzat jotzen dute elkarrekin jardutea, ondoko klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

1.- Bi elkarten arteko lankidetzaz berezi moduan, *XX. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia* egingo den egunerako eta haren aldeko sostengu esplizituaren erakusgarri gisa **ATERPEAK** prestatu duen promozio-kanpainaren 1.500 esku-orri banatzera konprometitzen da **OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA**. Promozio horren bidez, 5 euroko deskontu-bonua emango da gutxienez 30 euroko erosketetarako, parte hartzen duten elkarteko establezimenduetan, guztira 26 direlarik. Esku-orrian erreferentzia hauek agertuko dira: krosa, OSTADAR, ATERPEA, *Lasarte-Oria, Tratu on bat, Un buen trato* eslogana eta Udala. Esku-orri horien edizioa Lasarte-Oriako Udalak egingo du.

2.- Hiru entitate inplikatuak, azkenik, akordio-ildo berriak ezartzera konprometitzen dira, 2016. urtean zehar elkarlanaren bitartez marka sustatzeko.

Jesús Zaballos de Llanos  
Lasarte-Oriako Udala

Imanol Bardají Zuriarrain  
OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA

Ramón Ormazabal Mendiguren  
ATERPEA Merkatarri-Elkartea